

Tributu-Harremanen Printzipioen Koadroa

TRIBUTU-HARREMANEN PRINTZIPIOAK	
Lurralde Historikoek ezar dezaketen tributu-sistemaren printzipio nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> • Elkartasunari begirunea izatea • Estatuko zergen antolaketa orokorra kontuan izatea • Estatuarekin koordinazioa, harmonizazio fiskala eta elkar-lana izatea • Lurralde Historikoetako erakundeen artean koordinazioa, harmonizazio fiskala eta elkar-lana izatea • Nazioarteko itun edo hitzarmenen mende egotea
Lurralde Historikoetako tributu-arauketaren harmonizazio fiskaleko printzipioak	<ul style="list-style-type: none"> • Terminologia eta kontzeptuak Tributuen Lege Orokorrera egokitzea • Benetako presio fiskal osoa Estatuko gainerako lekuen parekoa izatea • Estatuko lurralde osoan pertsonak ibiltzeko eta geratzeko askatasuna errespetatu eta bermatzea, baita ondasun, kapital eta zerbitzuen zirkulazio-askatasuna ere, bereizkeriarik sortu gabe, enpresek euren artean lehiatzeko aukera murriztu gabe, edota baliabideak erabiltzean nahasmendurik eragin gabe • Abeltzaintza-, meatzaritza-, industria-, merkataritza-, zerbitzu-, lanbide- eta arte-jardueren kasuan, lurralde erkidean erabilitako sailkapen bera erabiltzea
Elkar-lanerako printzipioa	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak onetsi aurretik arauak elkarrekin trukatzeko betebeharra • Nazioarteko hitzarmenetan Euskadiko erakundeek elkar-lanean aritzea • Informazioa trukatzea eta ikuspenetarako lankidetzatza
Interpretazio-printzipioa	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomi Itunaren arauak interpretatuko dira Tributu Lege Orokorrean tributu-arauak interpretatzeko ezarri diren erregelen arabera
FINANTZA-HARREMANEN PRINTZIPIOAK	
Printzipio nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko erakundeen autonomia fiskala eta finantza-autonomia, euren eskumenak garatzeko eta betetzeko • Elkartasunari begirunea izatea Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako moduan • Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, Estatuarekin koordinazio eta elkar-lana izatea • Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen Estatuko zamak ordaintzea
Toki-erakundeei buruzko printzipioak	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuak une oro dituen finantza-zaintzako ahalmen berdinak Euskadiko erakunde eskudunek izatea • Lurralde Historikoetako Toki-erakundeek, itundu gabeko tributuetan parte hartzea